



ETXAURIKO UDALAREN OHARRA SARBILEKO PROIEKTUARI BURUZ

Joan den urriaren 31n, Etxauriko Udalak herri batzarra deitu zuen, Sarbilen proiektu agroboltaiko bat sortzeko eskuragarri dagoen informazioa ezagutarazteko. Aurreproiektu hori finkaren jabeak, Jaitzeko bizilaguna dena, sustatu du.

Orain arte, Udal honek ez daki Sarbil Eguzki, S.L. sustatzaileak proiektua Nafarroako Gobernuan aurkeztu duenik, izapidetzeko. Hori egiten duenean, lehenik eta behin, proiektuaren ezaugarri zehatzak ezagutuko ditugu, eta, bigarrenik, Nafarroako Gobernuaren administrazioak prozesu luze bati ekingo dio, proiektu horrek ingurumen-inpaktuaren adierazpena lor dezan edo ez.

Aldi berean, Udalak herritarren iritzia entzungo duen deliberazio prozesu bat jarriko du martxan, proiektuak maila guztietan izango duen eraginari buruzko eztabaida lasaia erraztu eta bideratzeko. Entzute eta eztabaida prozesu horrek hainbat sentsibiltate integratuko ditu, ulertuz, aberasgarria izango dela eraikitze terminoetan egiten bada.

Aurrekoetan adierazi bezala, Etxauriko Udalak ez du ahalmenik proiektu hau baimentzeko (hori Nafarroako Gobernuari dagokio) baina, bere interes soziala eta ingurumenekoa hobetuko luketen baldintza batzuk ezarri ditu; hori dela eta, interesgarria da aztertzen jarraitzea. Baldintza horien artean daude partaidetza eta jabetza publikoa, subiranotasun energetikoa bultzatzea, onura sozialak sortzea, ingurumen-kontrol handiagoa eta Sarbil mendiaren inguruko etorkizuneko proiektuak mugatzea.

Aipatutako guztiagatik, Udalak gardentasunarekiko bere konpromisoa berresten du, herri batzarraren eta proiektuaren sustatzailearekin sinatutako dokumentua argitaratuta erakutsi duen bezala. Era berean, bailarako gainontzeko eragile eta hautetsiekin elkarlanean jarraituko dugu, proposamen hori aztertzen jarraitzeko asmoz.

Etxaurin, 2025eko abenduak 12


Idoia Aritzala Etxarren
Etxauriko Alkatea - Alcaldesa de Etxauri